

2 ZIPOTZ JAIAK • Gros

egitaraua

UZTAILAK 9 • astelehena

12:00 Gazte Asanbladak antolatutako pala eta pilota txapelketa, Saguesko pilotalekuan.

15:00 3x3 saskibaloï txapelketa, Manteoko Kiroldegian.

17:00 Gazte Asanbladak antolatutako futbito txapelketa, Saguesko pilotalekuan.

20:00 Sagardotegi karparen inaugurazioa (Katalunia enparantzan). Txotx herrikoia izango da 21:00etatik aurrera, eta ondoren afariak.

UZTAILAK 10 • asteartea

11:30 Star Craft 2vs2 txapelketa 14:30 arte, eta 16:30etik 22:00ak arte, Sekundino Esnaola kaleko Global Games dendaren eskutik. Izen ematea aldeztu aurretik, dendan bertan.

15:00 3 x 3 saskibaloï txapelketa, Manteoko Kiroldegian.

20:00 Piano kontzertua, Mariaren Bihotzeko aretoan, Erviti musika eta Mariaren Bihotza elizaren laguntzarekin.

21:00 Afariak, Sagardotegi karpan (Katalunia enparantzan).

UZTAILAK 11 • asteazkena

12:30 Karate ikuskizuna, Txofren, Club Kikutxi eta Manteoko Kiroldegiaren eskutik

17:00 Erraldoi eta buruhandien irteera, auzoko kaleetatik zehar.

19:00 Pregoia eta jaien hasiera ofiziala, Txofre enparantzan. Sorginkoba taldeak pregoian parte hartuko du, eta ondoren auzoko kaleetatik ibiliko da.

20:00 Hitzaldia, San Ignazio elizako aretoan. Gaia: *Gros auzoa ezagutzen*. Hizlaria, Javier Maria Sada.

21:00 Afariak, Sagardotegi karpan (Katalunia enparantzan).

UZTAILAK 12 • osteguna

10:00 Pilota partidak, Sagueseko pilotalekuan, Groseko Gazte Asanbladak antolatutak.

17:00 Antzerkia, Hankagorri taldearen eskutik, Zurriola pasealekuan, Okendo Kultur Etxeak antolatua. *Urbasako astronautak*. Hankagorri antzerki taldeak eta EUSKALDUNON EGUNKARIAK ekoitzi dute *Urbasako astronautak* ikuskizuna.



Urbasako astronautak etorriko dira

Hankagorri antzerki taldeak eta EUSKALDUNON EGUNKARIAK *Urbasako astronautak* kale antzerki ikuskizuna emango dute Zipotz jaietan. Urbasatik etorritako hainbat txerri astronauta beren espaziontzia aireratzen saiatuko dira Grosen, heldu den ostegunean, arratsaldeko 17:00etan, Zurriola pasealekuan. Han bilduko diren haurren laguntza ezinbestekoa izango dute Martina, Martin, Martintxo eta Joxe Martin txerri astronautek, beren kohetea espaziorantz aireratzen saiatzeko.

19:00 Erraldoi eta buruhandien irteera, Nafarroa Behera plazatik.

20:00 Poteo herrikoia, perkusio musikarekin. Irteera Txofre enparantzatik izango da.

21:00 Afariak, Sagardotegi karpan. (Katalunia enparantzan).

22:00 Kontzertua, Zuhaiztiko enparantzan. Nekez eta Hira taldeak. IZ gaua.

Bitartean, Grafiti ikuskizuna izango da. Ondoren, Gazte Asanbladaren eskutik, gau jokoak, karaokea...

23:00 Pablo Liquido abeslari eta gitaristaren eskutik, kontzertua, Caledonian garagardotegian, Caledonian garagardotegiaren beraren laguntzaz.

UZTAILAK 13 • ostirala
Gate eguna

Egun osoan, Groseko Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi egingo ditu: jokoak, koardrilen jaitsiera, poteoa eta herri bazkaria...

18:00 Haur danborradaren irteera, auzoko kaleetatik zehar.

20:00 Sardina jate herrikoia, Txofre enparantzan.

21:00 Trisquele taldearen eskutik, Galiziako dantzen ikuskizuna izango da, Txofren.

21:00 Afariak, Sagardotegi karpan (Katalunia enparantzan).

22:00 Galiziako folka entzuteko parada, Txofren.

23:00 Antzerkia, Prometeu taldearen eskutik, Zurriolako pasealekuan, Okendo Kultur Etxeak antolatuta.

23:00 Kontzertua, Zuhaiztiko enparantzan. Aitzakiarik Ez eta O'Funkillo taldeak.

UZTAILAK 14 • larunbata

10:00 IX. Arrantza lehiaketa, Kursaal zubian, Zoo txiki, Antzeta eta El cangrejoren eskutik.

11:00 Haurrentzako eskulan lantegiak, Catalina de Erauso Arte Klubaren eskutik, Txofre enparantzan.

12:00 Xake emanaldia izango da, Katalunia enparantzan, Groseko xake taldearen eskutik.

12:30 Erraldoi eta buruhandien irteera, Nafarroa Behera plazatik.

16:00 Mus txapelketa hasiko da, Ricardotabernan.

16:00 Zezen mekanikoa eta puzgarriak, Txofren, Galiziako etxearen eskutik, arratsalde osoan.

18:30 Txokolatada haur eta gaztetxoentzat, Txofren, Groseko aisialdi tabernaren eskutik.

20:00 Helduen danborradaren irteera, auzoko kaleetatik zehar.

21:00 Salsa gauaren hasiera: herri afaria, Sagardotegi karpan. Aldeztu aurretik izena eman behar da, Aita Larroka kaleko Swing dantza eskola.

21:00 Afariak, Sagardotegi karpan (Katalunia enparantzan)

22:00 Kontzertua, Zuhaiztiko enparantzan. Harlax, Idi Bihotz eta Kop taldeak.

22:30 Dantza ikuskizuna izango da, Biteri enparantzan, Swing dantza eskolaren eskutik.

23:00 Salsa kontzertua eta dantzaldia, Biteri enparantzan. Laguntzaileak: Swing dantza eskola, Bar de La Plata, Pub Tximista eta Habana Club.

UZTAILAK 15 • igandea

09:00 Goiz eresia auzoko kaleetan zehar.

10:00 Artisauak egindako eskulanen erakusketa egun osoan, San Frantzisko oinezkoentzako kalean. Laguntzaileak: Gabiltza.

14:00 Bertso bazkariari emango zaio hasiera, Sagardotegi karpan (Katalunia enparantzan). Aldeztu aurretik, bazkarirako txartelak salgai jarriko dituzte auzuneko tabernetan.

18:00 Erraldoi eta buruhandien irteera, auzoko kaleetatik zehar.

20:00 Euskal dantzen emanaldia izango da, Txofre enparantzan, Trebeska taldearekin.

22:00 Erromeria izango da Auntx taldearekin, eta ondoren, jaien bukaera, Zuhaiztiko enparantzan, Okendo Kultur Etxearen eskutik.

Arratsalde osoan, artisauen eskulanen erakusketa izango da, San Frantzisko oinezkoentzako kalean.

Egun osoan feriak egingo dira, Nafarroa Behera enparantzan.

PITXIAK, s.l.

OPARI GAIAK
DEKORAZIOA

Padre Larroca, 5
Gros auzoa
Tel: 943 28 69 97

Padre Larroca, 14
Gros auzoa
Tel: 943 28 12 29

San frantzisko, 28
Gros auzoa
Tel: 943 32 26 00

DONOSTIA

Leizor

EMAKUME - GIZONENTZAKO
JANTZIDENDA

Segundino Esnaola, 13
Tel.: 943 28 91 29 - DONOSTIA

TABERNA

URKABE

TABERNA

Segundo Izpizua, 33
943 29 18 91
DONOSTIA